



2016 URTARRILA - AUZO BATZARRAK ASAMBLEAS MUNICIPALES - ENERO 2016

Auzoa Barrio	LARRAZABAL	
Data Fecha	2016-01-27	
Ordua Horario	19:00 – 21:20	
Lekua Lugar	Toki On jatetxea / Restaurante Toki On	
Bertaratuak Asistencia	<p>* Ordezkaritza politikoa / Representación política</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jon Iñaki Urkixo Orueta (BILDU) - Amets Meaza Castañares (BILDU) - Jon Ander Altube Lazkano (BILDU) - Isabel Bóveda Urioste (BILDU) - Juan Manuel Ibarretxe Revuelta (EAJ-PNV) - Nerea González García (OMNIA) - Aitor Anchia Escobar (OMNIA) - Iñigo Pedruzo Abasolo (PP) <p>* Udal teknikariak / Técnicas/os municipales</p> <ul style="list-style-type: none"> - Juan Fernando Etxebarri Goiria, Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Baserri-ingurunearen Arloko burua // Responsable del Área de Obras, Servicios, Mantenimiento y M.R. - Laura Castresana Iglesias, udal arkitekto teknikoa // arquitecta técnica municipal - Joseba Solaun Solana, Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Baserri-ingurunearen Arloko arduraduna // Encargado de Obras del Área de Obras, Servicios, Mantenimiento y M. R. <p>* Idazkaria / Secretaria</p> <ul style="list-style-type: none"> - Izaskun Egia Eskuza <p>* Dinamizatzailea / Moderador</p> <ul style="list-style-type: none"> - Epifanio Zurimendi Galdos <p>* Auzokideak / Vecinas/os</p> <ul style="list-style-type: none"> - Guztira/Total: 17 - Gizonak/Hombres: 13 - Emakumeak/Mujeres: 3 - Kazetaria/Periodista: 1 	
Gaien zerrenda Orden del día	<p>0.- Aurkezpena</p> <p>1.- Parte-hartze bidezko aurrekontuak</p> <p>2.- Larrazabal auzoan egindako lanak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • San Joan basilizaren estalkia konpontzea eta bolalekuaren estalkia berrikustea. • Landaluze kaleko 2.etik 10.era doan eraikinaren atzeko fatxadako 	<p>0.- Presentación</p> <p>1.- Presupuestos participativos</p> <p>2.- Trabajos realizados en el barrio de Larrazabal.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Reparación cubierta ermita San Juan y revisión cubierta Bolatoki. • Aseguramiento talud y muro en fachada trasera de Landaluze 2 a 10



	<p>ezponda eta horma finkatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egoitza zaharra birgaitzea. • Odeibarreko aparkalekua. <p>3.- Laudio osoan eragina duten gaiak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeetan obrak egiteko diru-laguntzak. • LHUI sare publikoan sartzea. • Enplegu-programak. • Hobetu herria. 	<ul style="list-style-type: none"> • Rehabilitación antigua residencia. • Aparcamiento Odeibar. <p>3.- Cuestiones que afectan a Laudio.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Subvención obras colegios centros educativos. • Integración del CMFP en la red pública. • Programas de empleo. • Mejora tu pueblo.
<p>Edukia Contenido</p>	<p>0.- AURKEZPENA (Natxo) Bertan diren zinegotziak aurkeztu ditu eta Auzo Batzarrak atzeratu izanaren arrazoia azaldu du: 2015eko abenduaren 20an hauteskundeak egon dira eta ondoren Gabonetako oporrak zetozen.</p> <p>1.- PARTE-HARTZE BIDEZKO AURREKONTUAK (Amets) Azaldu egin du udal aurrekontua dela Udalak duen tresnarik garrantzitsuena, zehaztu egiten dituelako ekitaldian, kasu honetan 2016an, bideratuko diren jarduketak, eta izango diren diru-sarrerak eta gastuak aurreikusten dituelako. Aurrekontuak Osoko Bilkuran onartu behar dira. Bi bloke dituzte: diru-sarrerak eta gastuak. Diru-sarrerak dira ekitaldian bideratu nahi diren jarduketak finantzatzeko bildu beharreko eskubide ekonomikoen aurreikuspena. Gastuak dira Udalak dituen gastu horiei guztiei aurre egiteko behar diren kredituen multzoa. Gastuen banaketaren arabera, arloka (10 arlo) edo atalka (6 atal) sailka daitezke. Jarraian, parte-hartze bidezko aurrekontuak eta abenduaren bukaeran Zuin aldizkariarekin batera jasotako inkestak elkarrekin lotu ditu. Inkosten helburua da herritarren ekarpenak jasotzea, jakiteko zein diren udal aurrekontuak egiteko kontuan hartu behar diren joerak eta beharrak. Horregatik bereizi dira bi bloke egin diren azken</p>	<p>0.- PRESENTACIÓN (Natxo) Presenta a los concejales asistentes y comenta el retraso de la realización de las asambleas de barrio, debido a las elecciones del 20 de diciembre de 2015 y a las vacaciones de Navidad.</p> <p>1.- PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS (Amets) Explica que el Presupuesto Municipal es la herramienta más importante que tiene el Ayuntamiento, la que marca cuáles van a ser las actuaciones del ejercicio, en este caso 2016, y el instrumento que regula la previsión de ingresos y gastos. Los aprueba el Pleno. Consta de dos bloques, ingresos y gastos. Los ingresos son la previsión de los derechos económicos a recaudar durante ese ejercicio, para poder financiar las actuaciones que se quieran llevar a cabo y los gastos son los créditos necesarios para poder afrontar todas las necesidades que tiene el Ayuntamiento. Según la distribución de los gastos, se pueden clasificar por áreas (10 áreas) o por capítulos (6 capítulos). A continuación relaciona los presupuestos participativos con las encuestas recibidas en casa junto con el Zuin a finales de diciembre. El objetivo de las encuestas es recoger las aportaciones vecinales para saber cuáles son las tendencias y necesidades a la hora de realizar el presupuesto municipal. De ahí que, en las</p>



inkestetan: alde batetik, alderdi globalak, hamar Udal Arloetan banatutako tematikekin eta, bestetik, alderdi espezifikoa, halaber, bi bloketan banatuta: udalerrri osoari dagokiona eta auzoan auzoko kontuei, kasu honetan, Larrazabali dagokiona.

Inkestan proposamen batzuk jaso dira eta beste batzuk ere egin daitezke, herritar bakoitzak nahi duena ipin dezan. Esan behar da inkestan ageri diren hiru proposamenak 2012ko inkestan lehenetsitako eta oraindik egikaritu gabeko lehenengo hiru jarduketak dira; bestela esanda, bigarrena egikarituta dagoenean hirugarrenera edo laugarrenera igaroko gara eta horrela pausoz pauso auzo bakoitzean.

Horrez gain, ekarpenak egiteko bideak ekarri ditu gogora: postontzietan utzitako paperezko inkestak, Udaletxean ere jaso daitezkeenak, udal webgunean zintzilikatutako inkestak eta Auzo Batzarretan parte hartzea. Inkestak aurkezteko epea urtarrilaren 29an bukatuko da, Auzo Batzarren zikloa bukatzen den egun berean. Azpimarratu behar da inkesten helburua dela aurrekontuen lehenetsiak zehaztea 2016ko aurrekontuak prestatzerakoan kontuan hartzeko ahal den heinean eta aurrekontu-eskuragarritasunaren arabera.

2.- LARRAZABAL AUZOAN EGINDAKO LANAK (Jon Ander).

- San Joan basilikaren estalkia konpontzea eta bolalekuaren estalkia berrikustea: 2015eko udaberrian egin zen, 16.000 euro inbertituta.
- Landaluze kaleko 2.etik 10.era doan eraikinaren atzeko fatxadako ezponda

encuestas actuales, se distinguen dos bloques diferenciados: por un lado, el área global, que hace referencia a diferentes temáticas, englobadas en las diez áreas del Ayuntamiento, y el área específica dividida en dos bloques, uno que hace referencia a todo el municipio y otro al barrio en concreto, en este caso, Larrazabal.

En la encuesta se han incluido unas propuestas y se pueden aportar otras diferentes, para que cada vecino/a proponga lo que le convenga. Decir que las tres propuestas que aparecen impresas en la encuesta son las tres primeras actuaciones que se priorizaron en la encuesta del año 2012 y que, aún no se han ejecutado; es decir, si la segunda ya está ejecutada, se pasa a la tercera o a la cuarta, y así sucesivamente en cada barrio. Recuerda además cuáles son las vías para poder realizar aportaciones: la encuesta en papel buzzoneada, que también se puede recoger en el Ayuntamiento de manera presencial o en la página web, y las propias asambleas de barrio. El plazo de presentación de encuestas finalizará el 29 de enero, el mismo día de finalización del ciclo de las asambleas de barrio. Remarcar que el objetivo de las encuestas es marcar cuáles son las prioridades presupuestarias, para tenerlas en cuenta, en la medida de lo posible y según disponibilidad presupuestaria, en la elaboración del presupuesto de 2016.

2.- TRABAJOS REALIZADOS EN EL BARRIO DE LARRAZABAL (Jon Ander)

- Reparación cubierta ermita de San Juan y revisión de la cubierta del Bolatoki: Se hizo en primavera de 2015 con una inversión de alrededor de 16.000€.
- Aseguramiento del talud y muro en la fachada trasera de Landaluze nº2 a 10: En verano de 2015 se afianzó el muro por importe de 6.760,75€, luego se ha



eta horma finkatzea: 2015eko udan finkatu zen, 6.760,75 € inbertituta. Ondoren, enplegu programa baten bidez, sastrakak garbitu dira eta udal langileek goiko aldea garbitu zuten. Landaluzeko eremu horretan bertan hezetasun-arazoak konpondu dira eta drainatzea egin da.

- Egoitza zaharra birgaitzea: Aurreproiektu bat aurkeztu da 2016 eta 2017ko Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren deialdirako; orotara, 2.206.940,58 € jaso dira aurrekontuan. Deialdi honetan eraikinak birgaitzeko proiektuak onartzen diren lehenengo aldia da. Diru-laguntzaren zenbatekoa jakin arte itxaron beharra dago jakiteko Aldundiak obraren zer zati laguntzen duen diruz eta, horrela, egikaritzeko planteamendua eta proiektua zehaztu ahal izateko.

Egoitza zaharrak hiru espazio ditu:

- Kanpo-antolamendua (ingurunea, sarbideak, hormak...), aurrekontu gisa 635.000 € dituena; Aldundiak ez du diruz laguntzen ez dagoelako diruz lagundu beharreko xedeen artean.
- Egoitza bera (840 m²), aurrekontu gisa 1.800.000 € dituena. Horretarako bai, Aldundiaren diru-laguntza jaso daiteke.
- Garai bateko estalpea, garbitegia (90 m²), aurrekontu gisa 180.000 € dituena.

Egikaritze-proiektua zehaztean erabakiko da eraikinak zer erabilera zehatz izango duen. Udalerrri osorako planteamendu orokora baten bidez erabakiko da. Larrazabaleko auzokideek gizarte etxe bat izateko agertu duten beharra asetzeko erabil daiteke eraikina, garai bateko estalpeak aukera ematen duelako beste eraikinaz besteko erabilera emateko, sarbide eta erabilera desberdinak izanda.

hecho el desbroce con un programa de empleo, y con personal propio del ayuntamiento se hizo la limpieza de la parte superior.

En esa misma zona de Landaluze se han resuelto problemas de humedades y se ha hecho un drenaje.

- Rehabilitación antigua residencia: Se ha presentado un anteproyecto a la convocatoria del Plan Foral de Obras y Servicios de los años 2016 y 2017, con un presupuesto de 2.206.940,58€. Es la primera vez que se pueden presentar a esta convocatoria proyectos de rehabilitación de edificios. Hay que esperar a la cuantía de la subvención, para saber que parte de la obra subvenciona diputación y luego hacer un planteamiento de ejecución y un proyecto.

Los espacios de la antigua residencia son tres:

- Organización exterior (entorno, accesos, muros,...) con un presupuesto de 635.000€, que no lo subvenciona diputación porque no entra dentro del objeto a subvencionar.
- La residencia propiamente dicha (840 m²) con un presupuesto de 1.800.000€ que sí es susceptible de ser subvencionada por diputación.
- Antiguo cobertizo, lavandería (90 m²) con un presupuesto de 180.000€

Será en la realización del proyecto de ejecución cuando se decidirán los usos concretos del edificio. Se definirán con un planteamiento general para todo el municipio. Este edificio puede recoger la necesidad solicitada por el barrio de Larrazabal de un centro social, porque el antiguo cobertizo permite que tenga un uso separado del resto del edificio, con accesos y usos separados.

- Aparcamiento Odeibar: se va a reordenar el espacio con un coste total



- Odeibarreko aparkalekua: espazioa berrantolatzeke 45.519,21 € jaso dira aurrekontuan. Udalak 25.000 € dauzka dagoeneko aurrekontuan jasota eta aldea otsailetik aurrera zuzkitu behar da, horretarako dirua dagoelako udal aurrekontuan. Aparkaleku prekarioa da eta Udalak adabakiak baino ez dizkio jarri azken urteotan. Bi aste iraungo lituzke obrak, erraza litzateke; asfaltatu, seinale horizontalak ipini eta aparkalekuaren babes-itxitura egitea.

3.- LAUDIO OSOAN ERAGINA DUTEN GAIAK (Jon Ander)

- Ikastetxe publikoetan obrak egiteko diru-laguntzak: Laudio Udalarik dagokio ikastetxe publikoen mantentze-lanez arduratzea. Ikastetxeak zaharrak dira eta urtero urtero ezartzen zaie dagokien lehentasuna egin beharreko konponketak. Eusko Jaurlaritzak lanen % 60 diruz laguntzen du eta gainerako % 40a Udalak ordaintzen du bere baliabideekin.
2015ean 114.457,58 € eskatu ziren eta 2016an 160.076,93 € eskatu dira.
- LHUI sare publikoan sartzea: Urte luzez Laudio Udalak kudeatu du eta gaur egun Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza sare publikoan sartzeko prozesua abiarazita dago. Urte asko daramatzagu hori lortzen saiatzen, baina 2011tik aurrera bizkortu egin da. 2013an onartu zuen Eusko Legebiltzarrak xedapen osagarrian Eusko Jaurlaritzaren eta Laudio Udalaren artean ikastetxe hori sare publikoan sartzeko hitzarmena sinatzeko aukera ematen duen legea. Lege horren aurretik, ez zegoen udal ikastetxea sare publikoan sartzeko aukerarik. Aste edo hilabete gutxiren buruan burutuko da integrazioa, Osoko Bilkuraren erabaki bidez onartuko den hitzarmena sinatzea falta delako. Oso positiboa izango da kudeaketa,

de 45.519,21€. El ayuntamiento dispone ya de 25.000€ en el presupuesto y hay que dotar la diferencia a partir de febrero porque existe disponibilidad presupuestaria para ello. Es un aparcamiento precario que a lo largo de estos años el ayuntamiento lo ha ido parcheando. Sería una obra de dos semanas de duración, sencilla, en la que se asfaltaría la zona, se pondría señalización horizontal y un cierre de protección del parking.

3.- CUESTIONES QUE AFECTAN A LAUDIO (Jon Ander)

- Subvención obras colegios públicos: El mantenimiento de los centros públicos corresponde al ayuntamiento de Laudio. Los centros son antiguos y todos los años se priorizan los arreglos a realizar. El 60% de las obras las subvenciona el Gobierno Vasco y el restante 40% el ayuntamiento con recursos propios.
En 2015 se solicitaron 114.457,58€ y en 2016 se han solicitado 160.076,93€.
- Integración del CMFP en la red pública: Durante años ha estado gestionado directamente por el Ayuntamiento de Laudio y actualmente se encuentra en proceso de integración en la red pública de educación del Gobierno Vasco. Es una cuestión que lleva muchos años intentándose conseguir, pero que se ha acelerado a partir del 2011. Es una ley aprobada en octubre de 2013 por el Parlamento Vasco la que posibilita en su disposición adicional la formalización de un convenio entre Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Laudio para integrar este centro en la red pública. Antes de esta ley no existía base legal para que el centro municipal se integrase a la red. La integración es cuestión de semanas o meses ya que se está a la espera de la firma de dicho



hezkuntza-eskaintza, kalitatea eta beste hainbat alderdi hobetuko direlako eta, horrez gain, Udalak 700.000 € gehiago izango duelako, ez duelako kudeaketa bere gain izango.

- Enplegu-programak: Aiaraldeko kuadrillaren bidez edo irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuekiko hitzarmenen bidez, hainbat deialdi aprobetxatu dira horrelako enplegu-programak martxan jartzeko eta, horrela, iraupen luzeko langabezia dauden pertsonak kontratatzeke, hiru helbururekin:
 - Udalerrian obrak egitea.
 - Lan-merkaturatzeko zailtasunak dituzten eta aukera bat behar duten hainbat pertsonari gaikuntza profesionala ematea.
 - Kalitatezko aldi baterako lana sortzea.

2015ean 23 pertsona kontratatu dira lanaldi osoan eta 6 hilabeterako. Ez dauka zerikusirik Udalak enplegu-poltsen bidez egiten dituen kontratazioekin. Diru-laguntza baten konturako enplegu-programak dira, proiektu bat daukate eta batzuk udal baliabide propioekin finantzatzen dira. Azken urteetan zaila izan da programa hauek aurrera eramatea, Estatutik datozen legeekin eta murrizketekin asko itxi direlako Udalek horrelako programak martxan jartzeko aukerak; hori dela eta, bestelako konponbideak bilatu behar izan dira.

Gainera, Udalak obra handietarako, esaterako, geltokiko lanetarako edo Aldaiko erreka saneatzeko lanak egiteko sinatzen dituen kontratu publikoetan klausula sozialak ipintzen ari dira enpresa esleipendunak betebeharra izan dezan udalerriko

convenio que se aprobará mediante un acuerdo plenario. Es algo muy positivo para la gestión, oferta educativa, calidad,... del centro y también va a suponer que el ayuntamiento pueda liberar una media de 700.000€ anuales, por no gestionarlo.

- Programas de empleo: Se han aprovechado diferentes convocatorias, a través de la cuadrilla de Ayala o a través de convenios con entidades privadas sin ánimo de lucro, para llevar adelante este tipo de programas de empleo que suponen contrataciones eventuales de parados/as de larga duración, con un triple objetivo:
 - Llevar a cabo obras del municipio.
 - Cualificar profesionalmente a una serie de personas con dificultades para integrarse en el mercado laboral y que necesitan una oportunidad de cualificación.
 - Generar empleo eventual con una cierta calidad.

Este año 2015 se han contratado 23 personas durante 6 meses a jornada completa. No tiene que ver con las contrataciones eventuales que realiza el ayuntamiento de bolsas de empleo. Son programas de empleo con cargo a una subvención, con un proyecto, y otros a veces subvencionados con recursos propios. Los últimos años ha sido difícil desarrollar estos programas porque con la legislación estatal y con los recortes se han cerrado mucho las posibilidades de este tipo de programas por parte de los ayuntamientos y por eso se han tenido que buscar otras soluciones.

Además, se están poniendo cláusulas sociales en los contratos públicos que realiza el ayuntamiento de obras grandes como la estación o el saneamiento del río Aldai, por las que la empresa adjudicataria está obligada a contratar a personas, hombres y mujeres, paradas del municipio para



	<p>emakume eta gizon langabetuak kontratatzeko. Hainbat segmenturengana iristea da asmoa, jende gaztea nahiz nagusia, genero ikuspegia ere aplikatuta gutxieneko emakume kopuru bat kontratatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hobetu herria: Udal webgunean dagoen tresna bat da. Fitxa edo postontzi horretan, gorabehera, iradokizun eta arazo berri eman daiteke, ondoren, dagokion arlora bidera daitezten eta ahal bezain laster konpon daitezten. Gorabeherak komunikatzeko beste modu batzuk dira 010era deitzea edo mekanismo klasikoa, hau da, Udaletxean bertaratzea. 	<p>trabajar en la obra. Se procura ir a diferentes segmentos, gente muy joven o gente mayor, teniendo en cuenta la perspectiva de género, y asegurando que haya un mínimo de mujeres contratadas.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mejora tu pueblo: Es una herramienta de la página web del Ayuntamiento. En esta pestaña o buzón se pueden aportar incidencias, sugerencias y problemas, que después se derivan al área correspondiente y se intentan resolver en el menor tiempo posible. Otras maneras de comunicar incidencias son el 010 o el mecanismo clásico de acercarse directamente al ayuntamiento.
<p>Galderak Preguntas</p>	<p>Auzokoa: Eskerrak eman ditu kaleko 24. zenbakian ipini diren kale-argiengatik. Ahal bada, 24. zenbakiaren parean zebrabidea ipintzeko eskatu du. Autoak ez dira gelditzen zebrabideetan eta bere ustez, batez ere, dendaren parean semaforo bat ipin liteke autoak geldi daitezten.</p> <p>Jon Ander: Jasota utzi du eta esan du aztertuko dela zerbait egin daitekeen. Batzarrak bukatzen direnean, egindako iradokizun guztiak jasoko dira, ikusteko nola hel dakizkien, egingarriak diren eta izatekotan, bakoitzari zer nolako lehentasuna ematen zaion.</p> <p>Auzokoa: Eskerrak eman ditu Landaluzeren atzeko aldeko hormarengatik. Horrez gain, lau puntu planteatu nahi ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ipinitako gomazko bi zebrabideek zarata handia egiten dute goizean goizetik kamioiak handik igarotzen direnean. <p>Jon Ander: Auzokoek eskatuta jarri ziren joan den legegintzaldiaren hasieran, abiadura motelarazteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Argixuren aurreko plazatxoan bi akademia daudenez, eskatu du bizikletak uzteko aparkalekuak jar daitezela. <p>Laura: Udallerri osoan halako eskaera ugari dago. Hainbat aurrekontu eskatu dira eta</p>	<p>Vecino: Da las gracias por las farolas que se han puesto en el nº24. Pide si es posible que se ponga un paso de cebra a la altura del nº24. Los coches no paran en los pasos de cebra y sobre todo a la altura de la tienda cree que se podría poner un semáforo para que paren los coches.</p> <p>Jon Ander: Se toma nota y se verá si es posible hacer algo. A partir de que se acaben las asambleas se van a recopilar todas las sugerencias que haya, para ver cómo se abordan, que se puede hacer o no, y darles una prioridad.</p> <p>Vecino: Da las gracias por el muro de detrás de Landaluze. Además quiere plantear cuatro puntos:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Los dos pasos de cebra de goma que se pusieron hacen mucho ruido al pasar los camiones desde la mañana muy temprano. <p>Jon Ander: A principios de la legislatura anterior se pusieron a petición de los vecinos/as para bajar la velocidad.</p> <ul style="list-style-type: none"> - En la plazoleta frente a Argitxu hay dos academias y pide que se pongan aparcamientos de bicicletas.



aparkalekuak non ipini aztertzen ari dira. Aipatutako kokapena ere kontuan hartuko da.

- Plazatxo horretan bertan dauden lorategi txikietan umeentzat labanak bezalakoak izan daitezkeen bistako adreiluak dituzte. Egunero zauritzen dira. Adreiluak zarpiatu eta pintatzea proposatu du.

Natxo: Untzuetan plazan eta Latierron arazo bera dago.

Juanfer: Adreiluak kalitate txarrekoak dira, ura xurgatzen dute eta izoztean arrakalak agertzen zaizkie.

Laura: Kontua aztertu egin behar da eta ez bakarrik leku horretan, badaudelako arazo bera duten zonaldeak.

- Esan duenez, hobe litzateke zebra bide bat ipintzea Argitxuren aurrean, ez dagoelako goian bat eta behean beste bat. Goikoak garaiera alde handia du eta oso zaila da handik igarotzea umeen orgatxo batekin edo ezindu baten gupil aulkiarekin.

Jon Ander: Horrelako kontuak auzo guztietan aipatu dira (espaloiak, zebra bideak...) eta ez dute inbertsio handirik eskatzen, baina langileak eta denbora behar da eta Udalak ezin ditu egin udal langileekin. Dirudenez, aurten martxan jarriko diren enplegu-programaren baten bidez obra publikoak egingo dira (5 pertsona) eta lan horiek sartzen dira horietan, baina lehentasunak jarri beharko dira, ziur aski, ezin izango delako dena egin.

Auzokoa: Kamioiak menditik behera datozela eta, asko hondatu da Larrazabaleko errepidea.

Jon Ander: Baserri-inguruneko batzarrean atera zen gaia eta mendien arloko teknikariak horren berri jaso zuen.

Auzokoa: Egoitzako semaforotik Larrazabaleraino 8 zebra bide daude. Bere ustez, behekoak ondo daude, baina goiko azkena altuegia da. Motel igarota ere, motelgailuak hondatzen dira. Gainera, debekatuta daudela uste du. Iaz ere horren

Laura: Hay muchas peticiones a nivel de municipio sobre ese tema. Se han pedido presupuestos de varios tipos y se están mirando los lugares donde colocarlos. Se tendrá en cuenta esta ubicación.

- Los jardines pequeños que hay en esa misma plazoleta tienen ladrillos caravista que son como cuchillos para los chavales. Todos los días se hacen heridas. Propone que se podrían rasear y pintar.

Natxo: Ese mismo problema hay en la plaza Untzuetan y en Latierra.

Juanfer: Los ladrillos son de mala calidad, absorben agua y se agrietan con las heladas.

Laura: Hay que estudiarlo, y no sólo en ese punto porque hay varias zonas con ese mismo problema.

- Dice que sería mejor poner un paso de cebrá enfrente de Argitxu, porque hay uno arriba y otro abajo. El de arriba tiene un desnivel grande y es muy difícil pasar por allí con un coche de niño o un minusválido.

Jon Ander: Estas cuestiones han surgido en todos los barrios (aceras, pasos de cebrá,...), que no implican grandes inversiones, pero se necesita mano de obra y tiempo, y el ayuntamiento no puede hacerlas con personal propio. Parece ser que alguno de los programas de empleo que se van a realizar este año va a ser de obra pública (5 personas) y se realizarían estas labores, pero priorizando porque seguramente no podrán hacer todo.

Vecino: Se ha estropeado mucho la carretera de Larrazabal al bajar los camiones del monte.

Jon Ander: Salió el tema en la asamblea rural y el responsable de montes tomó nota de ello.

Vecino: Desde el semáforo de la residencia hasta Larrazabal hay 8 pasos de cebrá. Opina que los de abajo están bien pero el último de arriba es muy pronunciado.



inguruko kexak egon ziren. Autobusek ezin dute aparkalekurako malda igo.

Laura: Badago arautegi bat, baina ez da herri arteko bideetarako, errepideetarako da. Herri arteko zatietan debekatuta daude (errepideetan), baina herri barruko zatietan onartu egiten dira. Abiadura motelarazteko hartu den aukera da.

Jon Ander: Txarto badaude, ondo egin beharko dira, baina abiadura moteltzeko zerrenda horiek auzo batzar batean eskatu ziren.

Auzokoa: Landaluze kaleko 7.etik 21.era doan zatian ibaia oso txarto dago.

Jon Ander: Batzar batean baino gehiagotan aipatu da gaia. Uraren Euskal Agentziaren eskumena da, eurek eman behar diotelako baimena Udalari ibaietan esku hartzeko. Orain arte, murriztapen handiagoak zeuden, baina udalen eta Uraren Euskal Agentziaren arteko hitzarmenei esker, udalek ibaietan egin ditzaketen lanak ugaritzen ari dira. Hortaz, orain posible da zarama kentzea, baina ezin da landareen gaineko esku-hartzerik egin. Udalak planteatu egin dizkio Uraren Euskal Agentziari dauden arazoak eta egin nahi dena eta, orain, euren erantzunaren zain gaude.

Auzokoa: Auzoan, egoitza zaharrear erretiratutakoentzako klub bat egiteko eskatu du.

Jon Ander: Ezin da planteatu auzo erretiratuentzako klub bat auzo bakoitzean. Garai bateko egoitzari emango zaizkion erabileren artean hori sar daiteke. Kontua da hainbat gauzatarako erabili ahalko den espazio gardena sortzea, domeka arratsaldetan dantzatzeko eta asteko gainerako egunetan beste gauza batzuetarako erabiltzeko, espazio bakoitzari erabilera bakarra eman gabe.

Auzokoa: Zebrabide ugari dago, baina oso

Pasando suave se estropean los amortiguadores. Además cree que están prohibidos. El año pasado también hubo quejas sobre este tema. En la subida al aparcamiento los autobuses no pueden subir.

Laura: Hay una normativa pero no para vías interurbanas, es de carreteras. Están prohibidos en tramos interurbanos (carreteras) pero se toleran en tramos urbanos. Es la forma que hay de reducir la velocidad.

Jon Ander: Si están mal habría que hacerlos bien, pero estas bandas reductoras se pidieron en una asamblea de barrio.

Vecino: En Landaluze nº7-21 el río está muy mal.

Jon Ander: Este es un tema que se está repitiendo en varias asambleas. Es competencia de la Agencia Vasca del Agua que es la que tiene que autorizar al ayuntamiento para actuar en los cauces. Hasta ahora estaba más limitado, pero vía convenios entre los ayuntamientos y la Agencia Vasca del Agua se están ampliando las labores que el ayuntamiento puede realizar en los ríos. Así, ahora es posible hacer la limpieza de basuras, pero no se puede intervenir sobre la vegetación. El ayuntamiento está planteando a la Agencia Vasca del Agua los problemas y lo que se quiere hacer, y hay que esperar su respuesta.

Vecino: Pide que se haga un club de jubilados en el barrio en la antigua residencia.

Jon Ander: No se puede plantear un club de jubilados para cada barrio. Entre los usos de la antigua residencia se puede incluir este también. Se trata de crear un espacio diáfano que se pueda usar para diferentes cosas, para bailar los domingos a la tarde y durante el resto de la semana para otras cosas, sin que sean espacios exclusivos para un único uso.



ondo daudela uste du, autoa matxuratu arren.

Auzokoa: Autoek akademiaren parean bigarren ilaran aparkatzen dute umeen bila joaten direnean eta horrek istripu arriskua eragiten du. Udaltzainek ez dute ezer egiten horri dagokionez. Espaloian eta debekatutako beste leku batzuetan aparkatzen duten udaltzainen jokabidea kritikatu du, gertu aparkatzeko lekuak izan arren hori egiten dutelako.

Jon Ander: Bigarren ilaran aparkatzearen ondoriozko buxadurak ekiditeko, apur bat beherago aparka liteke, Odeibarreko aparkalekuan. Gero oinez igo daiteke. Udaltzainen jokabideari dagokionez, eredugarri izan beharko lukete eta ez lituzkete horrelako maniobrak egin behar, pedagogia kontua da. Batzuetan, lanean ari direnean horrelako maniobrak egiten dituzte eta oinezkoentzako eremuetan sartzeko baimena dute beharrezkoa bada.

Auzokoa: Idazti bat aurkeztu zuen Herriko Etxean, autoek espaloi eta berdeguneetan zehar igarotzen direlako etxabeetara sartzeko eta hondatu egiten direlako. Bere garaian, etxabe horiek merkataritza-lokalak ziren, ez garajeak eta auzokide askok horrexegatik ez zituzten erosi. Kexa horien ondorioz, berdeguneetan porlana bota da eta auzokideak haserre daude, kontua ez delako berdeguneak kentzea.

Gainera, kexu da autoek Odeibarreko aparkalekuan aparkatzeko berdegunean zehar igarotzen direlako jaietan eta egun berezietan.

Jon Ander: Etxabeek ez dute ibirik eta horietara sartzen dira erabiltzaileak. Zenbait lekutan geratzen da hori. Kalea garbitzeko makina bideak garbitzeko eremura igaro zedin ipini zen porlana han, ez autoek igarotzeko aukera izan zezaten.

Auzokoa: Esan du Odeibarreko aparkalekua zelai irekian dagoela eta

Vecina: Hay muchos pasos de cebra, pero cree que están muy bien aunque se estropee el coche.

Vecina: Los coches aparcen en la carretera en doble fila a la altura de la academia para recoger a los niños, y hay peligro de accidente. Los municipales no hacen nada al respecto. Critica el comportamiento de los municipales que aparcen en la acera y otros lugares prohibidos, teniendo lugares para aparcar bien cerca.

Jon Ander: Los atascos por aparcen en doble fila enfrente de la academia se podrían solucionar si se aparcase un poco más abajo en el aparcamiento Odeibar y luego se subiese andando. En cuanto a la actuación de la policía municipal debería ser ejemplar y no hacer esas maniobras por una cuestión de pedagogía. A veces la policía en el desarrollo de sus labores hace esas maniobras y está autorizada a acceder a zonas peatonales si es necesario.

Vecina: Presentó un escrito en el ayuntamiento porque los coches pisan las aceras y zonas verdes para acceder a las lonjas y se estropean. Estas lonjas en su día se dijo que eran lonjas comerciales y no garajes, y por eso muchos vecinos no las compraron. A raíz de estas quejas se han cementado las zonas verdes y los vecinos están enfadados porque la cuestión no es quitar todas las zonas verdes.

Además se queja de que los coches aparquen en el jardín de Odeibar pisando la zona verde, en fiestas y días señalados.

Jon Ander: Las lonjas no tienen vado y se accede a ellas. Eso ocurre en varios sitios. La zona verde se cementó para que la barredora pudiese acceder a la zona a hacer la limpieza viaria, y no para que pudiesen pasar los coches.



horregatik beldur dela.

Jon Ander: Bere ustez, Odeibarreko aparkalekuaren xedea autoak erdigunetik ateratzea eta trafiko-buxatzeak eragozte da. Orain bai, zelai irekia da, baina obra egin ondoren, aparkalekua izango da.

Auzokoa: Eskerrak eman ditu Hamesako garaheetako hesiak konpondu izanagatik. Aderazi duenez, 21.etik 23.era doan zatian, ubide bat dago errepidearen erdian eta handik ura sartzen da beheko garaheetara. Hainbatetan erreklamatu da. Geruza bat ipin liteke kalea inklinatzeko, ura alde batera eramateko eta ez metatzeko. Aparkalekuetako marrak ere pintatu beharko lirakeke, dagoeneko ez direlako ikusten.

Albaitariaren kalean, seinale bat ipini beharko litzateke lehenengo blokean, Laudiotik datozen autoek, dagokien lekuan buelta eman beharrean, debekatutako norabidea hartzen dutelako ez delako eskuinean dagoen seinalea ikusten. Gainera, onartutakoa baino pisu handiagoa duten kamioiak sartzen dira buelta ematera. Arkuak ipini beharko dira anbulantziei igarotzen uzteko, baina ez kamioiei.

Hamesako lehenengo bloketik Laudiora jaisteko espaloian lauza asko solte edota apurtuta daude.

Jon Ander: Gauza jakina da herriko espaloiak oro har nola dauden. Zaharrak dira, mantentze-lanak ez dira behar bezala egin eta espaloiaren gainean aparkatzen da maiz. Lehenago esan bezala, lanei lehentasunak ezarri beharko zaizkie eta enplegu planen bidez nahiz udal langileen bidez ikusiko da zer egin daitekeen.

Juanfer: Garajeen gainean dagoen Hamesako etxeen zoruak titulartasun pribatua eta erabilera publikoa du. Auzokideek ere mantentze-lanak egiten lagundu behar dute, egin diren barandekin bezalaxe. Hala ere, Udalak obrak egitea erabaki dezake.

Vecina: Dice que el aparcamiento de Odeibar está en un descampado y tiene miedo.

Jon Ander: Cree que el aparcamiento de Odeibar cumple la función de procurar sacar los coches del centro y nudos de atasco. Ahora sí que es un descampado pero con la obra va a ser un aparcamiento.

Vecino: Agradece el arreglo de las verjas de los garajes de Hamesa. Reclama que la zona entre el nº21 y 23 tiene un canal en medio de la carretera y que por ahí entra el agua a los garajes de abajo. Se ha reclamado varias veces. Se podría echar una capa para inclinar la calle y que el agua vaya hacia un lado y no se embalse. También se deberían pintar las rayas de los aparcamientos porque ya no se ven.

En la calle del veterinario se debería poner otra señal en el primer bloque porque los coches que vienen de Laudio en vez de dar la vuelta por el lugar adecuado, se meten por dirección prohibida porque no se ve la señal que han puesto a la derecha. Además entran camiones de mayor peso que el permitido a dar la vuelta. Habría que poner unos arcos que permitan el paso de una ambulancia pero no de los camiones.

La acera de bajada desde el bloque primero de Hamesa hacia Laudio tiene muchas baldosas sueltas y rotas.

Jon Ander: Ya se sabe cómo están las aceras en el pueblo en general. Son antiguas, con mal mantenimiento y el aparcar encima de la acera tampoco ayuda. Como se ha comentado antes habrá que priorizar tareas, y mediante los planes de empleo y personal propio, ver que se puede hacer.

Juanfer: Todo el suelo de las casas de Hamesa encima de los garajes es un suelo de titularidad privada y uso público. Los vecinos también tienen que colaborar en su mantenimiento, lo mismo que en el



Auzokoa: Garai batean, auzokideen sinadurak jaso ziren eta Udalari eman zitzaion. Urtero-urtero garajeen jabeek dirua ipintzen dute hobekuntzak egiteko.

Juanfer: Esan du hori ezin dela laga. Duela lauzpabost urte obrak egin ziren han, baina ezin izan zen dena egin ez zegoelako nahikoa dirurik. Lan hauek ondo eginda daude, baina ez dira nahikoak. Ur gehienak kendu ziren.

Auzokoa: Ibaiaren aldeko 23. eta 25. zenbakien artean dagoen zatia konpondu egin zen, zorua altxatuta eta ehun asfaltikoa ipinita, eta ibaiko horman kobrezko xafla bat jarri zen markesina ipinitakoan ura jausi ez zedin. Hori egiteko arrazoa izan zen Udalak zuen interesa beheko garajeak saltzeko, Udalarenak baitziren.

Erantsi duenez, igogailua zero kotara jaitsi behar izan dute eta, horretarako, eraikinak azterketa igaro behar izan du, bestela, Eusko Jaurlaritzak ez zuelako dirulaguntzarik emango. Kontratatu zen bulegoko arkitektoen esanetan, hormetako ehun asfaltikoa altxatu eta ordeztu beharko litzateke eta dena konpondu beharko litzateke oso txarto dagoelako. Hormak zeharo hondatuta daude uraren eraginez. Arkitektoek txostena Udalera bidaliko zutela esan zuten.

Hiru blokeetako auzokideek biltzeko asmoa dute garajeetako itoginen kontua eztabaidatzeko eta, ondoren, Udalari bilera eskatzeko asmoa dute.

Jon Ander: Nahi dutenean dei dezakete bilera zehazteko. Bere ustez, kamioiei sartzea eragozteko neurria oso drastikoa da, esaterako, suhiltzaileen kamioia ere ezingo litzatekeelako sartu. Agian, bestelako konponbideak aztertu beharko lirateke.

Auzokoa: Desmunta daitekeen arku bat ipin liteke.

tema de las barandillas que se han hecho, aunque el ayuntamiento puede decidir realizar las obras.

Vecino: Hace tiempo, se recogieron firmas entre los vecinos y se donó al ayuntamiento. Todos los años los dueños del garaje ponen dinero para mejoras de esa zona.

Juanfer: Comenta que eso no se puede ceder. Hace 4 o 5 años se hicieron diferentes obras en esa zona pero no se pudo realizar todo porque no llegaba el dinero para más. Estas obras están bien echas pero no son suficientes. Se quitaron la mayoría de las aguas.

Vecino: El jardín que hay entre los nº23-25 de la parte del río se arregló, levantando y poniendo tela asfáltica, y en el muro del río se puso una placa de cobre para poner la marquesina y que no cayese agua. Eso se hizo porque al ayuntamiento le interesaba para vender los garajes de abajo que eran suyos.

Añade que han tenido que bajar el ascensor a cota cero y para ello han pasado una inspección del edificio para poder acceder a las subvenciones del Gobierno Vasco. En ese estudio los arquitectos decían que había que levantar y cambiar la tela asfáltica de los muros y arreglar todo porque está todo muy mal. Los muros están reventados del agua. Estos arquitectos iban a mandar el informe al ayuntamiento.

Para hablar sobre las goteras de garajes se quieren reunir los vecinos de los tres bloques y pedir una reunión con el ayuntamiento.

Jon Ander: Se puede llamar en cualquier momento para concertar una reunión. Cree que la solución del arco para que no entren los camiones es una medida muy drástica porque no podría entrar tampoco por ejemplo un camión de bomberos. Igual



Auzokoa: Karabanak aparkatzeko arauen bat ote dagoen jakin nahi du, han bi daudelako aparkatuta eta aparkalekutik ateratzeko begiratzerakoan arazoak sortzen dituztelako.

Jon Ander: Ez dago debekurik karabanek herrian aparkatzeko dauden plazetan aparkatzearen inguruan, oztoporik ipintzen ez duten bitartean. Beste kontu bat da normaltzat edo bitxitzat jotzea. Turismoek dituzten muga berberak dituzte aparkatuta egoteari dagokionez. Normalena da halako bat baduzu, beste espazio urrunago edo prestatuagoren batean uztea, baina batzuetan ez da hala izaten. Osoko Bilkuran onartu dena da autokarabanetarako aparkaleku bat ipintzea; ez da aparkatzeko aparkalekua izango, autokarabanekin bidaiatzen duen jendeak aparkatzeko eta zerbitzuak izateko aparkalekua baizik.

Auzokoa: Jakin nahi du bidegorriak luzatzeko eta bizikleten erabilera normalizatzeko planik ba ote dagoen, bizikleten erabilera bultzatzeko.

Jon Ander: Oraintxe ez dago horretarako planik eta ikusi behar da nola arautu. Gaia beste batzarretan atera da, esaterako, Latorrokoan, han arazoak baitituzte geltokiko lur azpiko igarobidean zehar abiadura bizian doazen bizikletekin. Planteatu egin zen marra baten bidez bizikletak igarotzeko zatia markatzea, baina, bere ustez, hobe da sen ona eta gizalegea aplikatzea zentzuzko abiaduran ibiltzeko jenderik ez badago eta, motelago joateko edo gelditu eta bizikletatik jaisteko jendea badago. Luiaondoko igarobidean ere gertatzen da jendea bidegorrian zehar doala hitz egiten eta ez dagoela bizikletak igarotzeko lekurik. Bere ustez, konponbidea ez da erabilera zehatza ezartzea espazio publiko bakoitzerako, ezta denetarako arauak jartzea ere, baizik eta hezte eta gizalege apur bat izatea. Dena den, bizikleta sustatu nahi badugu, horretarako baliabideak ipini beharko dira: bizikletaz ibiltzeko eremuak, ibilbideak,

hay que mirar otras soluciones.

Vecino: Se puede hacer un arco desmontable.

Vecino: Quiere saber si hay alguna norma de aparcamiento de carabanas porque hay dos aparcadas que quitan la visibilidad para salir del aparcamiento.

Jon Ander: No hay ninguna prohibición para que una autocarabana aparque en una plaza de aparcamiento en el pueblo, siempre que no suponga un obstáculo. Otra cosa es que nos parezca más o menos normal. La limitación de permanecer aparcada quieta es la misma que la que tiene un turismo. Lo normal es que si la tienes busques otro espacio para dejarla más alejado o acondicionado para ello, pero ocurre. Lo que se ha aprobado en el Pleno de poner un parking para autocarabanas, no es un parking para aparcar, sino un parking para que la gente que viaja con autocarabanas pueda parar y tenga servicios.

Vecino: Quiere saber si hay algún plan para ampliar los bidegorris y normalizar el uso de las bicicletas porque cada vez se usan más.

Jon Ander: Ahora mismo no hay ningún plan para ello y hay que mirar cómo se va a regular. Este tema ha salido en otras asambleas como por ejemplo en Latorro que hay problemas con las bicis que entran a gran velocidad por el paso subterráneo nuevo de la estación. Se planteaba marcar una línea para separar una zona de paso de bicis, pero cree que es mejor aplicar el sentido común y la educación yendo a una velocidad moderada si no hay gente, y más despacio o parar y bajarse de la bici, si hay gente. En el paseo de Luiando también sucede que la gente va hablando por el bidegorri y no hay sitio para que pasen las bicis. Cree que la solución no es definir cada uno de los espacios públicos para un uso determinado, ni poner normas para



bizikletak uzteko lekuak...

Auzokoa: Ume txikien parkeetara txakur handi eta oldarkorrek sartzen dira eta han dagoen jendea beldurtzen dute. Arriskutsua da.

Auzokoa: Bere ustez, interesagarria litzateke Udalaren kultur programazioaren barruan, auzoetan ere ekitaldiak programatzea.

Planteatu du Kukullu eremu eder baina ezezaguna eta ibilbide ekologikoen programaren barrua sar litekeela.

Gainera, bere ustez, Barbarako bihurtzean esleipenaren aurreko azken fasean aplikatu zen dinamika, hau da, auzokideekin etengabe lan egitea eta proposamenak eurekin erkatzea interesgarria izan zela eta ospitalearen gaia berreskura litekeela.

Jon Ander: Udalak ez du gaitasuna gauza bera egiteko auzo guztietan. Landaluze erdigunetik gertuago dago beste auzo batzuk baino. Adibidez, Ugarte ere gaia planteatu zen eta parkean soilik egiten zen Sorgin Zapatuak programa Gardeara eta Aretara eramaten zen 2012an eta Ugartera ekarri da 2015ean. Auzoetara eramateko aukera daude, baina Landaluzen ez dago horretarako espaziorik. Etorkizuneko topagune edo txoko sozial horretan, jendeak elkartzeko aukera izango luke, batzarrak egiteko, ekitaldi kulturalak egiteko... Kasu horietan, Udalak beharrezko baliabideak, laguntza teknikoak eta abarrik ematen ditu... Betiere, espazioa kudeatzeko auzokideen laguntza izanda, auzolanaren bidez edo kudeaketa mistoa izanda.

Auzokoa: Jakin nahi du nola geratu den San Joanera arte iristen zen Nerbioi ibaiaren ardatz lineala. Landaluzeko auzokideek ekarpena egin zuten oinezkoentzako sarbidea izango lukeen zabalgunea egiteko.

Jon Ander: Planteatuta dago, baina ez da zehazki garatu. Hirigintza-planteamendu

todo, sino educar para ello y un poco de civismo. Otra cosa es que si queremos que se ande en bici, hay que dotar los medios para ello: que haya zonas para andar en bici, itinerarios, zonas donde dejar las bicis,...

Vecino: Entran perros grandes y agresivos a los parques de niños pequeños y atemorizan a la gente que está allí. Es peligroso.

Vecino: Cree que sería interesante que dentro del programa cultural del ayuntamiento haya actos que se lleven a los barrios.

Plantea que Kukullu es una zona desconocida y muy bonita que podría entrar dentro de ese programa de recorridos ecológicos.

Además opina que la dinámica de contraste y trabajo permanente con los vecinos que se llevó en la curva de Barbara en la última fase antes de la adjudicación fue interesante y que se podría retomar para el tema del hospital.

Jon Ander: El ayuntamiento no tiene la capacidad de hacer lo mismo en todos los barrios. Landaluze está más cerca del centro que otros barrios. Por ejemplo en Ugarte se planteó este tema y el programa de Sorgin Zapatuak que se hacía sólo en el parque, en el 2012 se llevó a Gardea y Areta, y en el 2015 se ha hecho en Ugarte. Existen posibilidades de llevarlo a los barrios, pero en Landaluze no hay un espacio para ello. En ese espacio de encuentro o txoko social futuro la gente podría reunirse, hacer una asamblea, temas culturales,... El ayuntamiento en estos casos aporta unos medios, recursos, asistencia técnica,... pero con la colaboración de los vecinos/as en la gestión de ese espacio, auzolan o gestión mixta.

Vecino: Quiere saber cómo ha quedado el eje lineal del Nervión que llegaba hasta San



baten zirriborroa da, ez da garatu, ezta zehaztu ere. Aurreikuspenen arabera, aurten berrikusiko da plan orokorra eta hori da proposa, ñabar eta zehatz daitezkeen gauzetako bat.

Auzokoa: Bere ustez, heziera txarrekoa da Auzo Batzar batean euskaraz egitea.

Jon Ander: Mahaiak ahalegina egin du euskaraz esandakoa gaztelaniara itzultzeko, baina, agian ez da beti den-dena itzuli. Galderetarako azken txandan norberak nahi duen hizkuntzan hitz egin dezake eta, ondoren, gaztelaniari itzultzeko ahalegina egiten da. Auzo Batzarrak bi hizkuntzetan egiten direla bermatu behar du Udalak. Etorkizunari begira, planteatu daiteke Osoko Bilkuretan erabiltzen denaren antzeko interpretazio-sistema ipintzea, euskara dakitenek erabiltzeko aukera izan dezaten, bestela, euskaraz dakienak ezingo duelako inoiz erabili, ez delako lortuko mundu guztiak euskaraz jakitea. Ez da inor mindu nahi izan inolaz ere.

Auzokoa: Batzarraren xedea herrigintza da, kexak, ideiak eta abarrak agertzea eta batzarrean dagoen jendeak horri eman behar dio lehentasuna, hizkuntza alde batera utzita.

Auzokoa: Uste du terrazan inguruko legeek arautzen dutenaren arabera, Udalak espazio publikoa alokatzen diela tabernei, baina batzuetan hainbeste mahai ipintzen dira, ezen oinezkoak igarotzeko leku gutxi geratzen baita. Mugaren bat ipini behar da.

Jon Ander: Udalak ez die tabernei espazio publikoa alokatzen, egiten duena da espazio publikoa tarte batez okupatzeagatik tasa bat kobratu, baina ordaintzeak ez du eskubiderik ematen nahi beste espazio okupatzeko. Mugak egon, badaude, baina batzuetan ez dira

Juan. Los vecinos de Landaluze hicieron una aportación para hacer una zona de expansión con un acceso peatonal.

Jon Ander: Esta planteado pero no hay un desarrollo pormenorizado de eso. Son los grandes trazos de un planteamiento urbanístico, sin desarrollar ni concretar. Se cree que a lo largo de este año se va a iniciar la revisión del Plan General y esa es una de las cosas que se puede proponer, matizar y concretar.

Vecino: Cree que es una falta de educación que se hable en euskera en una asamblea de barrio.

Jon Ander: Desde la mesa se ha hecho el esfuerzo de traducir al castellano lo que se ha dicho en euskera pero quizás a veces no se haya traducido todo. En el turno de preguntas cada uno puede hacer la intervención en la lengua que quiera y luego se hace el esfuerzo de traducirlo al castellano. Como ayuntamiento tenemos que garantizar que en las asambleas de barrio se pueda hablar en ambas lenguas. A futuro se puede plantear, poner un sistema de traducción simultánea como en los plenos para que los que sabemos euskera lo podamos usar porque si no el que sabe euskera jamás lo va a poder hablar ya que no se va a conseguir que todo el mundo sepa euskera. En ningún momento se ha querido herir la sensibilidad de nadie.

Vecino: El sentido de esta asamblea es hacer pueblo, aportando las quejas, ideas,... que queramos hacer y la gente que está en la asamblea debe priorizar esto, dejando de lado la lengua.

Vecina: Cree que hay una legislación de terrazas por la que el ayuntamiento alquila el espacio público a los bares, pero a veces se ponen tantas mesas que hay muy poco espacio para que pasen los peatones. Tiene que haber unas limitaciones.

Jon Ander: El ayuntamiento no alquila el espacio público a los bares, lo que hace es



errespetatzen eta egia da arazoak sor daitezkeela. Halaber, egia da kaleko jarduerak kalea pizten dutela. Bien arteko oreka bilatzean datza gakoa. Jaietan terrazak zabaltzea eskatzen da. Terrazak ez badie igarotzen uzten oinezkoei, terraza hori txarto dago. Distantzien arautegi bat dago eta aplikatu behar da.

Auzokoa: Jakin nahi du zein izan den irizpidea Zumalakarregiko zuhaitzetan jarri den materiala jartzeko, oso itsusia iruditzen baitzaio.

Natxo: Hori egiteko arrazoia izan da oso hondatuta zegoela eta zuhaitzen oinaren inguruko lurra inguratzen zuen harria irristakorra zela. Bestalde, txakurrek kaka egiteko erabiltzen zen. Azkenean, iragazkorra den material hori ipintzea erabaki zen, gainera, garbitzeko aukera ematen duelako.

Jonan: Bertaratutakoei etorri izana eskertu die eta batzarra bukatutzat eman du 21:15ean.

cobrar una tasa por ocupar temporalmente el espacio público, pero no porque se pague se puede ocupar todo el espacio que se quiera. Tiene limitaciones que a veces no se respetan y es verdad que pueden surgir problemas. También es verdad que la actividad en la calle es un elemento que da vida. El problema está en buscar el equilibrio entre ambas cosas. En fiestas se piden ampliaciones de terrazas. Si la terraza no deja pasar a los peatones, efectivamente esa terraza está mal. Hay una normativa de distancias y hay que aplicarla.

Vecina: Quiere saber qué criterio se ha seguido a la hora de poner el material que se ha puesto en los árboles de Zumalakarregi porque ópticamente hace muy feo.

Natxo: Se ha hecho porque estaba muy deteriorado y la piedra que había alrededor de la zona de tierra de los árboles era resbaladiza. Por otro lado, se había convertido en un lugar que se usaba para que los perros fuesen a defecar. Al final se decidió poner esa materia que es porosa y que permite absorber el agua, y además se puede limpiar.

Jonan: Agradece la asistencia y da por finalizada la Asamblea a las 21:15 horas.